


3.FUNTSEZKO SOZietateak:

Gure enpresa behar bezala funtzionatzeko, hainbat bazkide eta hornitzaile garrantzitsu ditugu. Funtsezko bazkideak dira gure negozio eredua gauzatzeko enpresarekin lankidetzan aritzen diren pertsonak edo erakundeak, eta bereziki teknologia arloan duten ekarpena azpimarratzekoa da. Bazkide hauek baliabideak, ezagutza eta harreman estrategikoak eskaintzen dituzte, eta horri esker gure lanaren atal batzuk automatizatzea posible da.

Hornitzaileei dagokienean garrantzitsuenak ondorengoak lirateke:

- 1) **Backend eta Frontend hornitzaileak:** ezinbestekoak dira webgunea eta aplikazioak garatzeko. Webguneak erabiltzaileentzako erraza izan behar du, ordainketak egiteko zein funtzio teknikoak erabiltzeko (argazkiak igotzea, produktuak bilatzea), eta datuen kudeaketa seguru eta fidagarria bermatu behar du.

- 2) **Google Cloud:** gure plataformak azkar eta egonkor funtziona dezan, mantentze-zerbitzu fidagarria behar dugu. Horretarako, Google Cloud erabiliko dugu, egonkortasuna eta errendimendua bermatzeko.



- 3) **Diseinatzaile grafikoa:** webgunearen diseinua erabiltzaileek erraz ulertzeko modukoa izan behar da. Diseinu erakargarri eta landuak esperientzia hobetzen du eta fidelizazioa indartzen du.
- 4) **Bidalketa enpresak:** produktuen bidalketa segurtasunez egitea funtsezkoa da. Horretarako, Correos, Inpost eta DHL enpresekin elkarlanean arituko gara, prezio eta segurtasun aldetik aukerarik onenak eskaintzen dituztelako. Produktuak egoera onean eta garaiz iristea ezinbestekoa denez, bidalketa prozesuari garrantzi berezia emango diogu.